

LEHIARA ITZULTZEKO PROTOKOLOA

2020

DENBORALDIA

2020ko iraila - V.2.0

Julián Gaiarre, 44
48004 Bilbao

T. 94 459 81 11
F. 94 459 81 63
fvk.ekf@karateuskadi.eus

1. ZATIA OROKORRA

SARRERA_____

Agiri honen xedea da Karate eta diziplina atxikien Euskal Federazioko kirolariek, teknikariek eta entrenatzaileek, epaileek eta kirol-erakundeek nahitaez bete beharreko neurri batzuk ezartzea, lehiaketa ofizialera itzultzeko erkidegoan.

Agiri honen markoa COVID-19aren pandemia eta 2020an egondako konfinamendu eta deskonfinamendu etapen ondorengo normaltasun berria dira.

Protokolo honek ezartzen du FVK/EKFK zuzenean gainbegiratzen duen kirol-jarduera ofizialerako marko orokorra eta Federazioak entrenamenduetara itzultzeko eta, oro har, lehiara itzultzeko egindako araudien jarraipena da.

Protokolo honen xedea da ahalik eta kontu handienarekin ibiltzea, kontuan izanik inolako arriskurik gabeko ingurua ezinezkoa dela; dena dela, protokolo honetan osasun eta segurtasun arloko praktikarik hoberenak bildu ditugu, baina FVK/EKFKo kide guztien lankidetzak eskatzen dugu arriskua minimizatzen.

PROTOKOLOAREN INTERPRETAZIOA_____

Protokolo hau termino zehatzetan interpretatu behar da eta kirola egingo den une eta toki bakoitzean onartu den erkidegoko, lurraldeko edo tokiko araudi orokorraren markoan kokatu behar da, araudi horrek finkatuko baititu herritarrek kirola segurtasun osoz egiteko behar diren segurtasun-neurri egokiak.

Lehiaketako baldintza orokorrak finkatu ditu protokoloak, eta baldintza horiek kontuan izango dituzte lehiaketa garatuko den erkidegoko, lurraldeko eta tokiko arauak. Era berean, dagokionean kirol-elkarteek edo -erakundeek ezar ditzaketen osasun-segurtasuneko neurri zorrotzagoei kalterik egin gabe ezarriko da protokolo hau.

Faktore hauen eboluzioaren mende egongo da protokoloa beti: maila altuagoko araudiaren mende eta egoeraren mende.

**EZARTZEKO _____ EREMUA: OBJEKTIBOA ETA
SUBJEKTIBOA _____**

Objektiboa.

Protokolo hau ezarriko da erkidegoko lehia eta jarduera guztietan, baita FVK/EKFren ikuskapenarekin egingo direnetan edo Euskadin egin eta egutegi ofizialean jasotzen direnetan ere, hauek arreta berezia eta berezitua beharko duten arren, burutuz gero.

Subjektiboa.

Protokolo hau ezarriko zaie FVK/EKFren ikuskapenarekin erkidegoan egingo diren lehiaketetako edo jarduera ofizialetako partaideei.

PROTOKOLOAREKIN BAT EGIN _____

FVK/EFKko kide guztiek bat egin behar dute protokolo honetako praktika higieniko-sanitario onekin; ondorioz, zorrotz errespetatu behar dituzte agiri honetako gomendio, jarraibide eta ohartarazpen guztiak, baita gomendatutako praktika on estandarrak ere.

PROTOKOLOA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK _____

Protokolo honetako neurriak betetzen ez badira, dagokion kirol arloko diziplina-erantzukizuna izango da, egon daitezkeen administrazio eta zigor arloko arau-hausteez gain; horien guztien berri emango die eskudun agintariei FVK/EKFk.

**AUTOERANTZUKIZUNA _____ ETA _____
ERANTZUKIZUNA _____ BORONDATEZKOTASUN**

FVK/EKFko pertsona guztiak ohartu behar dira bakoitzaren jarduera pertsonal eta arduratsuekin norberaren eta besteen osasuna bermatuko dutela, segurtasun-neurriak betetzea ezinbestekoa dela kirola ahalik eta seguruen egiteko; lurralde bakoitzeko Federazioen eta zuzendarien, kirolarien, elkarteen, arduradunen, teknikarien, laguntzaileen, ordezkarien, epaileen, federazioko taldeen eta FVK/EKFren egiturako gainerako kideen ardura da, bereziki:

- Protokoloko baldintza guztiak betetzea.
- FVK/EKFko kide guztiek baldintza horiek betetzen dituztela zaintzea.
- FVK/EFKri berehala jakinaraztea baldintzak betetzean egondako gorabehera oro.
- COVID-19aren susmoa izanez gero, berehala jakinaraztea.
- Berehala isolatzea eta kutsatuta dagoen susmoa izanez gero edo kutsatuta egon daitezkeen norbaitekin harremana izanez gero ez agertzea jendartera.

INOIZ ERE EZ ETORRI FVK/EKFren LEHIA EDO JARDUERA OFIZIAL BATERA kutsatuta dagoen susmoa izanez gero edo gertuko inguruan positiboren bat egonez gero edo norbera positiboa izanez gero, osasungintzako eskudun agintariak BAIMENA eman arte.

FVK/EKFren jarduera edo lehiaren batean parte hartu behar duen pertsona eta talde bakoitzak borondatez eta askatasun osoz egiten du, neurri hauek eta ezarriko diren protokoloak borondatez eta askatasun osoz onartzen ditu eta ohartzen da ez dagoela batera arriskurik gabeko egoerarik eta karatea eta diziiplina atxikiak egiteak eta lehiaketetan parte hartzeko joan-etorriak egiteak arriskua izan dezaketela, baina borondatez eta askatasun osoz onartzen du arrisku hori.

2. ZATIA BERARIAZKOA

1. FVK/EKfK GAINBEGIRATUTAKO LEHIAKETA ETA JARDUERA OFIZIALAK EGITEKO NEURRIAK

PROKOLOA BETETZEKO ARDURADUNA IZENDATU.

FVK/EKfK gainbegiratutako lehia edo jarduera bakoitzean protokolo honetako neurriak betetzeko arduradun bat izendatuko da, pertsona horrek lehiaketa egingo den tokiari buruzko berariazko ezagutza praktikoa izatea baloratuko da eta ezarritako higiene-neurri eta -printzipio guztiak betetzen direla ziurtatuko da.

HIGIENE ARLOKO ARDURADUNA IZENDATU.

Lehiaketaren bat egingo den kirol-instalazio edo -gune guztietan antolatzaileak higiene arloko arduradun bat izendatuko du, kirol-instalazioari edo -guneari buruzko berariazko ezagutza praktikoa eta funtzionamendua ezagutzen dituen.

SENDAGILE BURU BAT IZENDATU.

FVK/EKFren lehiaketa ofizialetan medikuntza eta osasun arloko arduradun bat izendatuko da, osasun arloko gorabeheren kontrola egin behar da, eskudun agintariei gorabehera horien berri emango zaie eta protokoloa betetzearen arduradunarekin lankidetzan aritu behar da beti.

LEHIAKETA AURRETIK.

Lehiaketa izango den instalazioek eta instalazio horietako langile arduradunek autonomia-erkidegoek agindutako SARS-CoV-2rik gabeko higieneko osasun-arau guztiak bete

Julián Gaiarre, 44
48004 Bilbao

T. 94 459 81 11
F. 94 459 81 63
fvk.ekf@karateuskadi.eus

beharko dituzte.

FVK/EKFK kirolari, teknikari, epaile eta lehiaketako langile guztiei gomendatzen die Estatuko gobernuak garatu duen **Radar Covid19** tresna erabil dezatela, ohiko protokoloa ere aktibatu dadin, pandemiaren kontrol handiagoa izateko.

FVK/EKFren konpromisoak, lehiaketaren antolatzaile gisa:

- a) Indartzeko protokolo hau garatu.
- b) Protokolo honetako beharrezko neurri guztiak ezarri eta bete, FVK/EKFri dagokionean antolakuntza.
- c) Protokolo honetako beharrezko neurri guztiak ezarri eta betetzeko eskatu antolakuntzako erakunde laguntzaile guztiei.
- d) Protokolo honi erantsitako agiria nahitaez sinatzeko eskatu erakunde eta pertsona partaide guztiei; agiri horren bidez hitza ematen dute protokoloan aurreikusitako neurri guztiak beteko dituztela eta antolakuntza erantzukizun orotatik salbuesten dela antolakuntzaren errurik eta utzikeriarik egon ez den kutsatzeetan eta egun dagoen arrisku objektiboaren ondorioz izan bada, pertsona bakoitzak bere egin behar baitu arrisku hori.
- e) Protokoloa betetzeko arduraduna izendatu.
- f) RADAR COVID aplikazioa erabiltzeko gomendatu lehiaketetan zerikusia duten guztiei.

Erkidegoko edo tokiko eskudun agintariek ezarritako irekitze- edota erabilera-protokoloak bete beharko dira; baita lehiaketa antolatzeko eta kirol-instalazioen edota -guneen segurtasuna zaintzeko beharrezko segurtasun-protokoloak eta protokolo polizialak ere.

Osasun arloko araudiak edota ikuskizun publikoetakoak adierazitako ikur argiak jarriko dira, eta gune osoan neurri higienikoen berri emateko kartel informatiboak ere bai.

Izen-ematea telematikoki egingo da, FVK/EKFK izen-emateko epeak murriztu egin ditzake, partaideen osasuna bermatzeko beharrezkoa izanez gero. Lehiaketa bakoitzeko Zirkularrak zehaztuko ditu izen-emateari buruzko neurri zehatzak, agintarien gomendioen arabera. Izen-ematea telematikoki egingo da, FVK/EKFK izen-emateko epeak murriztu egin ditzake, partaideen osasuna bermatzeko beharrezkoa izanez gero. Lehiaketa bakoitzeko Zirkularrak zehaztuko ditu izen-emateari buruzko neurri zehatzak, agintarien gomendioen arabera.

Lurralde Federazio edo Kirol Elkarte batek emanez gero izena, agiri honekin batera doan 4. Eranskina sinatu beharko da.

Lehiaketa bakoitzeko Zirkularrak zehaztuko ditu izen-emateari buruzko neurri zehatzak, agintarien gomendioen arabera.

Lehiaketako programazioan behar adina denbora utzi beharko da erabilitako eta beharrezko guneak garbitzeko eta ondorioz, ordutegiak koordinatu beharko dira.

LEHIAKETAREN ANTOLAKUNTZA.

FVK/EKFren lehiaketa ofizialean ibilbide zonal jakina izango da, lehiaketara joatea eta parte hartzea segurua izan dadin eta osasun-arloko protokoloak bete daitezzen.



Karate eta DA kirolaren lehiaketa guztiak egingo dira eta sendagileak eta premiazko arretako osasungintzako langileak egongo dira, beraz, FVK/EKFK lehiaketan bertan dauden sendagileen eta osasungintzako langileen iritzia eta gomendioak izango ditu, osasun arloko neurriak hobeto egokitze eta betetzen direla bermatzeko.

Lehiaketako programazioan behar adina denbora izango da garbiketa lanak egiteko; FVK/EKFK egiaztatu egingo du instalazioetako garbitasuna eta segurtasuna, eskudun agintariekin koordinazioan.

Era berean, segurtasuneko langileak izango dira sarbideak eta irteerak kontrolatzeko eta protokolo honetako neurriak betetzen direla ziurtatzeko; langile horiek bermatuko dute sartzeko ibilbide bat eta irteteko beste bat daudela, lehiaketan inolako pilaketarik egon ez dadin.

Gutxienerako beharrezko materiala instalazioan:

Temperatura kanpotik hartzeko termometro digitala.

Oinetakoak desinfektatzeko ontziak edo alfonbrak.

Eskuak desinfektatzeko botilak, gutxienez 5 puntutan: instalazioaren sarreran, pisatzeko eremuaren sarreran, berotzeko eremuan, lehiaketakoan eta komun eta aldageletan.

Eskularruen eta maskaren kaxak, ezohiko egoeretan edo behar denean banatu ahal izateko, baita garbitzeko eta desinfektatzeko materiala ere. Gutxienez 5 maskara-kaxa, salbuespenetan kirol-gunean sartu beharra izan eta beraien babes- eta segurtasun-materialik eramango ez dutenen artean banatzeko.

LEHIAKIDEENTZAKO GOMENDIO OROKORRAK.

LEHIATZERA IRTEN AURRETIK:

Partaide guztiek maskara eraman beharko dute eta maskarekin sartuko dira lehiaketako zona guztietan.

Lehiakide guztiek beteko dituzte FVK/EKFK ezarritako derrigorrezko inprimakiak eta agiriak eta Zirkular bakoitzean adierazitako tokian eta epean aurkeztu beharko dituzte.

COVID19a izan duen norbaitekin egon bazara edo sintomaren bat izan baduzu, COVID19aren proba ofizial bat atxiki beharko duzu, parte hartzeko baimena duzula adieraziz.

Ahal den guztian zeure ibilgailuan egin joan-etorriak.

Garraio publikoa edo Federazioetako edo Elkarteetako garraioa erabiltzen baduzu, erakunde horiek joan-etorrietarako ezarritako neurriak bete behar dira beti eta eskudun agintariek oro har garraio publikorako ezarritakoak ere bai, dena dela:

Beharrezkoa da maskara erabiltzea gune publiko guztietan, kanpoan eta barruan eta 1,5 m-ko segurtasun-distantzia mantentzea.

Aireportuan edo geltokian dagoen gel hidroalkoholikoa erabili, eta zeure gela eraman ahal dela.

Zure ekipajea eta objektu pertsonalak zaindu. Ahal dela azalerak ez ukitzen saiatu. Praka luzeak, zapatilak eta galtzerdiak erabili. Mahuka motza erabiliz gero, zurekin eraman beti jaka.

Zure ekipajea zuk zeuk eta banaka jaso.

Bidaian maskara erabili. Bidaia 6 ordu baino gehiagokoa bada, maskara aldatu egin behar duzu. Ahal dela FPP2 edo KN95.

Derrigorrezko neurri guztiak bete behar dira autonomia-erkidegoko eta Espainiako Estatuko garraio publikoetan.

Partaideen betebeharrak eta kirol-instalazioetan edo -guneetan antolakuntzak mugatutako eremuetara sartuko direnenak:

- a) Kontrol epidemiologikoko inprimakia (KPI) bete.
- b) Eskuak desinfektatu.
- c) Maskara erabili.
- d) Distantzia soziala mantendu.

NAHITAEZKO EREMUAREN MUGAKETA:

1. eremua. Kirol-instalazioetarako sarbidea

Ikusleak ezingo dira instalazioetan sartu.

Kirol-instalazioetara baimendutakoak bakarrik sartuko dira, lehiaketan izena emanda daukatena, baimendutako langileak eta dagokien identifikazioa beharko dute. Ezingo dira sartu baimenik ez dutenak.

Sarbidean identifikazio pertsonalaren kontrola egongo da, lehiaketan sartzeko behin-behineko baimena egiaztatzeko; sarrerako ilaran segurtasun-distantzia gorde beharko dute eta homologatutako maskara eraman beharko dute nahitaez edota lehiaketako garaian indarrean den beste edozein segurtasuneko elementu.

Identifikatu ondoren, eta instalazioan sartzeko behin betiko baimena lortzeko, gorputzeko tenperatura hartu beharko da (gehienez 37º beharko da), oinarrizko osasun-egoera kontrolatuko da eta oinetakoak desinfektatuko dira desinfektatzeko likidoa dagoen ontzi batetik igaroz. (Dena dela, tenperaturari dagokionez autonomia-erkidegoan ezarritakoa bete beharko da).

Tenperatura 37,1º edo gehiago bada, 10 minutuz zain egon beharko da eta bigarren aldiz hartuko da; bigarren aldi horretan ere parametro berdinetan egonez gero, ez da instalazioan sartzeko baimenik emango.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

KIROLARIEK

Protokolo honetako 1. Eranskinean dagoen lokalizazioko eta kontrol epidemiologikoko inprimakia eta 2. Eranskinean dagoen erantzukizunpeko adierazpena behar bezala beteta entregatu beharko dira; kirolaria adinez nagusia bada, kirolariak berak sinatuko ditu, aldiz, adingabea bada, legezko ordezkariak edo tutoreak sinatuko ditu.

LEHIAKETAKO GAINERAKO PARTAIDEEK.

Antolakuntzari sinatuta entregatuko dizkiote 1. eta 3. eranskinak.

Norbaitek ez baditu kontroleko inprimakia eta erantzukizunpeko adierazpena aurkezten eta betetzen eta inprimaki horretako adierazpenak dagokion agiriekin bermatu ezin baditu edo anomaliak baditu tenperaturako kontrolean, ez zaio instalazioetan sartzen utziko.

Kirol instalazioan dagoen bitartean nahitaez eraman beharko da maskara, lehiakide bakoitzak bere maskara eraman beharko du eta une oro distantzia soziala mantendu beharko du, hau da, 1,5 metro.

Kirolariak banaka sartuko dira instalazioan, distantzia soziala mantenduko dute, mailaren eta adinaren arabera sartuko dira, antolakuntzak ezarritako ordutegian eta sartzeko ate jakin batetik.

Kirolarien antolakuntzak langileen gomendioak bete beharko dituzte eta protokoloa betetzeko informazio-kartelak eta -seinaleak izango dituzte.

Antolakuntzako langileek etengabeko kontrola egingo dute aldageletan, instalazioetara karate-giarekin sartzeko gomendatzen zaie kirolariei. (Kirolariei gomendatzen zaie kaleko arroparen azpitik lehiaketako kirola jantzita etortzeko, kaleko arropa poltsa batzuetan sartuko dute erantzitakoan eta antolakuntzak adierazitako tokiren batean utziko dira poltsa horiek, xede horretarako egokituta egongo baita tokiren bat).

Antolakuntzako langileak, osasun arlokoak, epaileak eta zuzendariak sarreratik sartuko dira instalaziora eta kirolarien antzeko sarbide-kontrolak izango dituzte; instalazioan dauden bitartean maskara eraman beharko dute.

Zuzendari bakoitzari, antolakuntzako langileei, kirolariei, teknikariei, epaileei, osasun arlokoei identifikazio bat emango zaien serreran eta hor agertuko da zein zonatarako sarbidea duten. Erabat galarazita izango dute identifikazio horretan ez dauden eremuetan ibiltzea.

Baimendutako eremuak errespetatzen ez dituztenei pabiloia uzteko gonbita egingo diete segurtasuneko boluntarioek, eta eskudun agintariei jakinarazi ahal izango zaie COVID-19aren protokoloa ez dela bete.

2. eremua. Pisatzekoa.

Kirolariak banaka eta mailaren arabera pasako dira pisatzeko eremura eta 1,5 metroko segurtasun-distantzia betetzeko eremua errespetatuko dute; maskara jantzita izan beharko dute beti.

Antolakuntzak beharrezko babes-neurriak eta garbitzeko eta desinfektatzeko elementuak izango ditu pisatzeko arduradunentzat, eta erabilitako azalerak ahalik eta gehien desinfektatuko eta garbituko dira.

3. eremua. Berotzekoa.

Berotzeko eremuak soilik kirolariak erabiliko dituzte eta 1,5 metroko distantzia mantentzeko adina toki izango da, lehiatu behar duen kirolari kopuruaren arabera.

Lehiaketako zirkular bakoitzean, kirol-instalazio bakoitzaren ezaugarrien eta inguruabarren arabera, berotzeko eremu honetan egon daitekeen GEHIENAKO JENDE KOPURUA ezarriko da.

Kirolariekin batera egon ahal izango dira kirol-teknikariak, baina horien kopurua eta instalazioetan sartu eta egoteko baldintzak dagokion lehiaketako Zirkularrean zehaztuko dira.

Berotze ariketarako gune bat ezar daiteke, gune hori egurastuta egon daiteke eta ahalik eta ongien desinfektatu eta garbitu behar da.

4. eremua. Lehiaketakoa.

Lehiaketara gunera sartzeko, nahitaez antolatzaileek deitu beharko dute, sartu aurretik oinetakoak desinfektatzeko likidoa duen ontzi bat egongo da eta gel hidroalkoholikoak ere bai esku eta oinentzat eta kirolarien babeserako materiala desinfektatzeko.

Lehiaketarako zehaztutako teknikoak lehiaketa bakoitzerako banaka aztertu eta egingo dira Zirkular bakoitzean, partaide guztiak ahalik eta segurtasunik handienarekin lehiatu ahal izateko.

Federazioko zuzendaritza teknikoak ezarriko ditu lehiaketa bakoitzean hartu beharreko berriak eskudun agintarien gomendioei jarraituz, bakoitzaren eskumen teknikoen eta kirol arlokoen barruan, dena dela:

Banako Kata lehiaketa maskararik gabe egingo da, nahiz eta beste kirolariek ez den harremanik izango eta lehiaketa garaian tatamiaren zonan beti 1,5 metroko segurtasun-distantzia gordeko den.

Taldeko Kata lehiaketa: Bunkai ariketarik eta taldeko proba teknikorik ez da egongo.

Kumite lehiaketa: maskararik gabe egingo da, eta ezingo da heldu eta bota, kirolarien artean harremanik egon ez dadin.

Kirolariek lehiatzen ari diren bitartean COACH bat baldin badute, honek maskara eraman beharko du, ez du materialik ukituko eta eskuak edo materialak (aulkiak, esaterako) garbituko ditu lehiaketako gunera sartzean eta irtetean. Salbuespeneko kasuetan (osasun-neurriak hartu ahal izateko) antolakuntzak erabaki dezake lehiaketan Coachak ez egotea.

Lehiaketa bakoitzari dagokion zirkularrean osasun neurriak hartu ahal izango dira eta neurri horiek eragina izan dezakete karateko eta diziplina atxikietako erregelamendu teknikoan, partaide guztien zaintza, segurtasuna eta osasuna hobeto bermatu ahal izateko.

Antolakuntza-mahaian ahalik eta kide gutxien egongo da eta postuen artean distantzia mantenduko da; maskara jantzita egon beharko da beti.

Lehiaketa eremuko epaileen mahaia ere ahalik eta pertsona gutxienekin osatuko da, postuen artean distantzia mantenduko da eta epaileek maskara eramango dute jardura osoan; epaile-lanak egiten ari ez badira, harmailetan egongo dira, beraien artean behar adinako distantzia soziala mantenduz.

Antolakuntzako eta osasun arloko langileek maskara eramango dute jardura osoan.

Lehiaketaren eremuan gel hidroalkoholkoa egongo da kirolariak erabili dezan lehiaketara sartzean eta irtetean, epaileek ere jardun bakoitza hasterako eta amaitzean eskuak garbitu beharko dituzte.

Dena dela, ahalik eta pertsonarik gutxien ibiliko da antolakuntzan, epaile-lanetan, lehiaketako mahaian..., postuen artean segurtasun-distantzia mantenduko da eta maskara eraman beharko da beti. Erabilitako eta kirolarien arteko kontaktua sor dezakeen kirol-material eta epaileen material oro gel hidroalkoholikoarekin desinfektatuko da.

Lehiaketako zonak -tatamiak- gutxienez 90 minututik behin desinfektatuko eta garbituko dira.

Antolakuntzako mahaia eta epaileen mahaia desinfektatuko eta garbituko dira.

Maitasun-adierazpenak saihestuko dira, baita hirugarrenekin kontaktu fisikoa behar duten agurrak ere.

Berotzeko eremuaren eta lehiaketakoaren artean eta lehiaketako zonaren irteeran jendea lasai igarotzeko moduko tartea ezarriko da, pilaketarik egon ez dadin.

Ahal dela, kirol-instalazioaren ezaugarriak kontuan izan eta **INSTALAZIOAN ERABILITAKO ZONAK ALDIRO EGURASTU** egingo dira.

Ez ukitu eskuak, begiak, sudurra eta ahoa.

Medikuak esku hartu behar izanez gero, osasun laguntzarako mediku-zerbitzuak ezarritako arauak erabiliko dira.

Ezingo dira botila-urak edo beste edozein likidorenak partekatu, bakoitzak berea erabili beharko du.

Ezingo da partekatu kirola praktikatzeko beharrezko materialik.

5. eremua. Instalaziotik irten.

Kirolariak lehia amaitzean podiumera igo behar badu, segurtasun-neurriak bete beharko ditu sari-ematean; podiumera igo beharrik ez badu, instalazioa utzi egin beharko du. Ezingo dira harmailak okupatu. Segurtasun handiagoa izateko, bakoitza dagoen tokian garbituko da.

Ezingo da agurtu, maitasun adierazpenik egin edo beste inolako kontakturik izan.

Dominak erabili behar dituzten pertsonak beharrezko osasun-neurriak hartu beharko dituzte (gelak eta dominak desinfektatu), era berean, sariak eman behar dituen pertsonak sariak eman aurretik eskuak eta maskara desinfektatuko ditu eta ez du eskurik, besarkadarik edo musurik emango.

PROTOKOLOA HEDATU ETA EGOKITU___

FVK/EKFK protokolo hau ahalik eta gehien zabalduko du kideen, erakundeen, kirolarien eta abarren artean, baita jendearen eta erakundeen artean ere, galderak, iradokizunak, oharrak, neurriak, proposamenak egin daitezten eta protokolo hau hobeto ezar dadin eta ondorioz Karatea eta diziplina atxikiak segurtasunez, osasunez eta errazi beharreko araudia ezarri egin daitezten.

Era berean, FVK/EKFn azkar esku hartzeko lantalde bat eratu da, protokoloa bete eta garatzeko beharrezko eta berariazko neurri guztiak hartu ahal izateko, baita eskudun agintariak onartutako araudien arabera egin beharrekoak hartzeko ere.

ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA** KOKAPENARI ETA KONTROL EPIDEMIOLOGIKOARI BURUZKO INPRIMAKIA
- 2. ERANSKINA** KIROLARIEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA KONPROMISOA.
- 3. ERANSKINA** ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA GAINERAKO PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISOA.
- 4. ERANSKINA** KIROL FEDERAZIOEN EDO KLUBEN ZIURTAGIRIA.
- 5. ERANSKINA** EGIAZTATZEKO GAUZEN ZERRENDA.
- 6. ERANSKINA** BALIZKO COVID-19 KASUETAN ERABILTZEKO NEURRIAK.

1. ERANSKINA

KOKAPEN PERTSONALARI BURUZKO INPRIMAKIA (KPI)*:

Ekitaldiko partaide guztiek bete beharrekoa.

Izena eta NAN pasaportean edo beste nortasun-agiriren batean ageri diren bezala:

..... NAN.....

Lehiaketa garaiko helbidea (kalea/apartamentua/hiria/posta-kodea/herrialdea):

.....

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

Lehiaketan duen parte hartzea _____

Azken 14 egunetan hiri (herrialde) hauetan egon zara:

Azken 14 egunetan:

Zk.	Galderak	BAI	EZ
1	Gertuko harremanik izan duzu COVID-19a diagnostikatuta duen norbaitekin?		
2	Zuzeneko arreta eskaini diezu COVID-19a duten pazienteei?		
3	Giro itxi batean egon zara edo ikusi duzu COVID-19a duen pazienteren bat?		
4	Lana egin/ikasi duzu gertu edo lantoki edo ikasgela berdinean COVID-19a duten pazienteekin?		
5	COVID-19a duen pazienteren batekin bidaiatu duzu edozein garraiobidetan?		
6	COVID-19a duen pazienteren batekin etxe berean bizi izan zara?		

Erantzunetakoren bat «bai» izanez gero, zehatzago adierazi kontaktuko tokia eta unea:

Zk.	Tokia	Azalpena

* Galdera sorta hau sinatu duen pertsonak antolakuntzari baimena ematen dio bertako informazioa osasun publikoko tokiko agintariei jakinarazteko partaideren batek COVID-19 gaixotasuna badu edo berretsitako kasuren batekin harremanetan egon bada harremanen arakatzeko azkarra egin ahal izateko, era berean, Covid-19ari aurrea hartzeko antolakuntzak hartutako osasun-neurriak ere baimentzen ditu.

Julián Gaiarre, 44
48004 Bilbao

T. 94 459 81 11
F. 94 459 81 63
fvk.ekf@karateuskadi.eus

* Datuen tratamendua: lehiaketako egunetan eta tokian instalazioetan dauden pertsonen segurtasuna. Osasunaren babesa ziurtatu, txapelketa barruan kutsatzea saihestu eta balizko berragertzeak hautematen lagundu. Tratamenduaren legezkatzea: interesatuaren eta beste pertsona fisikoen bizi-interesak babestu (Datuen babeserako araudi orokorreko 46.a kontuan izanda). Gordetzeko epeak: Informazio hau tratamenduaren xedea bermatzeko behar den gutxieneko epean gordeko da, hau da, lehiaketetako, kontzentrazioetako... osasuna bermatzeko behar den epean, eta berragertzeak hautematen lagunduko da, eta ondoren ezarri daitekeen araudiaren arabera legezko epeetan gordeko dira datuok. Lagapenen hartzaileak: Derrigortzen duen legezko agindurik ez bada, ez da aurreikusten osasun-agintariei jakinaraztea. Interesatuaren eskubideak: Interesatuek sartzeko, zuzentzeko, eramateko, mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea erabili dezakete FVK/EKFra zuzenduz, tratamenduaren arduraduna baita.

Sin. KIROLARIA edo TUTOREA (PARTAIDEA)

.....(en) 20.....(e)koren(e)an

2. ERANSKINA

KIROLARIEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, NAN zenbakidunak,
telefono zenbaki hau eta(e)n bizi denak, neure izenean edo
FVK/EKFko kide den adingabearen aita/ama/tutore legez

agertzen naiz eta adierazten dut

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

1. Badakidala eta ohartzen naizela KARATE ETA DIZIPLINA ATXIKIAK egitean, nahiz entrenamenduetan nahiz lehiaketetan COVID-19az kutsatzeko arriskua dudala, eta ohartzen naizela eta onartzen dudala arrisku hori, eta eskubidea izango dut protokoloetan ezarritako babes eta komunikazio arloko arauak bete ez dituzten pertsonen aurka dagozkien erreklamazioak aurkezteko.
2. Ez dudala SARS- CoV-2 koronabirusaren patologiarik (37 gradu edo gehiagoko sukarra, eztula, ondoeza, airea falta zaidan sentrazioa, dastamena galdu, buruko mina, nekea, lepoko mina, giharretako mina, goragalea, beherakoa) edo infekzioen berezko beste sintomarik.
3. Ez dudala positibo eman eta ez dudala harreman esturik izan COVID-19aren sintomatologia duen edo gaixotasuna baieztatuta duen inorekin agiri hau sinatu aurreko 14 egunetan.
4. Lehiaketaren antolatzaileak ezarritako COVID-19aren segurtasun-protokoloak, informazio-neurriak eta higiene eta segurtasun arloko prebentzio-neurriak irakurri ditudala, eta arduraz beteko ditudala, erabat eta han ezarritako jarraibideen eta jokabideen arabera, eta onartzen dudala higiene arloko arduradunak motu propio erabaki dezakeela ni lehiaketatik eta kirol-instalaziotik kanporatzea, jarraibide horiek betetzen ez baditut.
5. Ohartzen naizela eta onartzen dudala COVID-19aren inguruko arauak ez betetzea, bereziki positibo eman izana ez aitortzea edo sintomak dituzten pertsonekin gertuko harremanak izana ez aitortzea arau-hauste oso larria dela diziplina-kodean eta ondorioz, lehiaketatik kanpo gera naitekeela eta denboraldi osorako kirol-lizentzia galdu dezakedala.

6. Parte-hartzaileak onartzen duela aurreko atalean dauden kirol arloko neurriek ez dietela kalterik egiten eskudun agintarien aurrean (federazioko diziplina-organoak barne) hark gaizki egin ditzakeen beste erantzukizunei, kirol-federazio arloan edo beste alor batzuetan ezarri beharreko aginduak eta jarraibideak kontuan ez izateagatik edo ez betetzeagatik .
7. Hitza ematen dudala FVK/EKF antolatzaileari, nire LURRALDE-FEDERAZIOARI/ELKARTEARI jakinaraziko diodala COVID-19arena izan daitekeen edozein sintoma badut, positibo eman badut edo nire familian edo gertuko inguruan Covid-19a duen norbait badago edo egon badaiteke eta hitza ematen dudala eboluzioaren berri zehatza emango diedala lehiaketako arduradunei.
8. Partaideak onartzen duela FVK/EKFK neurriak edo erabakiak hartuko balitu lehiaketan zehar pertsonen osasuna zaintzeko, ezingo dela esan antolatzailearen funtsezko betebeharrak ez direla bete, ondorioz, ezingo da kopuruak ordaintzeko eskatu, ezta kalte-ordainik ere edo izena ematerakoan edo parte hartzeko eskubideengatik ordaindutakoa itzultzeko ere ez, ezta kirolariak edota federazioak, elkarteak edo interesatuak berak izandako kosturik ere.

Informazio hau isilpekotasunarekin tratatuko da eta xede bakarra birusa kutsatzea eta hedatzea saihesteko beharrezko neurriak hartzea izango da. Agiri hau betetzean, behean sinatzen duenak berariazko baimena ematen du FVK/EKFK datu hauek tratatu ahal izateko ikuspegi medikotik eta prebentziokotik.

Aldi berean, eta agiri hau sinatzean adierazten du FVK/EKFren protokoloan ezarritako berariazko babes- eta higie-neurriak ezagutzen dituela eta haren arauak nahitaez bete behar dituztela partaideek KARATE ETA DIZIPLINA ATXIKIEN kirol-lehiaketa ofizialetan eta horietan parte hartzen duten lurralde-federazioek eta Federazioari atxikitako elkarte partaideek ere nahitaez bete behar dituztela.

Aurrez aipatutako arauak betetzea partaide bakoitzaren erantzukizuna da eta FVK/EKFK ez du inolako erantzukizunik lehiaketan parte hartzearen ondorioz egon daitezkeen kutsatzeenik.

Eta dagokion ondorioetarako hala ager dadin,

SINATZEN DUT

.....(e)n, 20....(e)koren(e)an.

3. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA GAINERAKO PARTE-HARTZAILEEN KONPROMISOA

..... jaunak/andreak, adinez nagusiak etaNAN zenbakidunak, telefono zenbaki hau eta(e)n bizi denak, neure izenean eta FVK/EKFren lehiaketa edo jarduera ofizial bateko _____ parte-hartzaile gisa

agertzen naiz eta eta adierazten dut

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

1. Badakidala eta ohartzen naizela KARATE ETA DIZIPLINA ATXIKIAK egitean, nahiz entrenamenduetan nahiz lehiaketetan COVID-19az kutsatzeko arriskua dudala, eta ohartzen naizela eta onartzen dudala arrisku hori, eta eskubidea izango dut protokoloetan ezarritako babes eta komunikazio arloko arauak bete ez dituzten pertsonen aurka dagozkien erreklamazioak aurkezteko.
2. Ez dudala SARS- CoV-2 koronabirusaren patologiarik (37 gradu edo gehiagoko sukarra, eztula, ondoeza, airea falta zaidan sentrazioa, dastamena galdu, buruko mina, nekea, lepoko mina, giharretako mina, goragalea, beherakoa) edo infekzioen berezko beste sintomarik.
3. Ez dudala positibo eman eta ez dudala harreman esturik izan COVID-19aren sintomatologia duen edo gaixotasuna baieztatuta duen inorekin agiri hau sinatu aurreko 14 egunetan.
4. Lehiaketaren antolatzaileak ezarritako COVID-19aren segurtasun-protokoloak, informazio-neurriak eta higiene eta segurtasun arloko prebentzio-neurriak irakurri ditudala, eta arduraz beteko ditudala, erabat eta han ezarritako jarraibideen eta jokabideen arabera, eta onartzen dudala higiene arloko arduradunak motu propio erabaki dezakeela ni lehiaketatik eta kirol-instalaziotik kanporatzea, jarraibide horiek betetzen ez baditut.
5. Ohartzen naizela eta onartzen dudala COVID-19aren inguruko arauak ez betetzea, bereziki positibo eman izana ez aitortzea edo sintomak dituzten pertsonekin gertuko harremanak izana ez aitortzea, arau-hauste oso larria dela diziplina-kodean eta, ondorioz, lehiaketatik kanpo gera naitekeela eta denboraldi osorako kirol-lizentzia galdu dezakedala, baita egokia den beste edozein zehapen jaso ere.

6. Parte-hartzaileak onartzen duela aurreko atalean dauden kirol arloko neurriek ez dietela kalterik egiten eskudun agintarien aurrean (federazioko diziplina-organoak barne) hark gaizki egin ditzakeen beste erantzukizunei, kirol-federazio arloan edo beste alor batzuetan ezarri beharreko aginduak eta jarraibideak kontuan ez izateagatik edo ez betetzeagatik.
7. Hitza ematen dudala FVK/EKF antolatzaileari, nire LURRALDE-FEDERAZIOARI/ELKARTEARI jakinaraziko diodala COVID-19arena izan daitekeen edozein sintoma badut, positibo eman badut edo nire familian edo gertuko inguruan Covid-19a duen norbait badago edo egon badaiteke, eta hitza ematen dudala eboluzioaren berri zehatza emango diedala lehiaketako arduradunei.
8. Partaideak onartzen duela FVK/EKFK neurriak edo erabakiak hartuko balitu lehiaketan zehar pertsonen osasuna zaintzeko, ezingo dela esan antolatzailearen funtsezko betebeharrak ez direla bete, ondorioz, ezingo da kopuruak ordaintzeko eskatu, ezta kalte-ordainik ere edo izena ematerakoan edo parte hartzeko eskubideengatik ordaindutakoa itzultzeko ere ez, ezta kirolariak edota federazioak, elkarteak edo interesatuak berak izandako kosturik ere.

Informazio hau isilpekotasunarekin tratatuko da eta xede bakarra birusa kutsatzea eta hedatzea saihesteko beharrezko neurriak hartzea izango da. Agiri hau betetzean, behean sinatzen duenak berariazko baimena ematen du FVK/EKFK datu hauek tratatu ahal izateko ikuspegi medikotik eta prebentziokotik.

Aldi berean, eta agiri hau sinatzean adierazten du FVK/EKFren protokoloan ezarritako berariazko babes- eta higie-neurriak ezagutzen dituela eta haren arauak nahitaez bete behar dituztela partaideek KARATE ETA DIZIPLINA ATXIKIEN kirol-lehiaketa ofizialetan eta horietan parte hartzen duten lurralde-federazioek eta Federazioari atxikitako elkarte partaideek ere nahitaez bete behar dituztela.

Aurrez aipatutako arauak betetzea partaide bakoitzaren erantzukizuna da eta FVK/EKFK ez du inolako erantzukizunik lehiaketan parte hartzearen ondorioz egon daitezkeen kutsatzeenik.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

SINATZEN DUT

.....(e)n, 20....(e)koren(e)an.

4. ERANSKINA

LURRALDEKO KIROL FEDERAZIOEN EDO KLUBEN ZIURTAGIRIA.

..... jaunak/andreak, adinez nagusiak etaNAN
zenbakidunak, telefono zenbaki hau eta(e)n bizi denak,
.....(a)ren ORDEZKARI gisa

ZIURTATZEN DUT

1. Parte-hartzaile batek ere ez duela SARS- CoV-2 koronabirusaren patologiarik (37 gradu edo gehiagoko sukarra, eztula, ondoeza, airea falta zaidan sentsazioa, dastamena galdu, buruko mina, nekea, lepoko mina, giharretako mina, goragalea, beherakoa) edo infekzioen berezko beste sintomarik.
2. Parte-hartzaile batek ere ez duela positibo eman eta ez dudala harreman esturik izan COVID-19aren sintomatologia duen edo gaixotasuna baieztatuta duen inorekin agiri hau sinatu aurreko 14 egunetan.
3. Lehiaketako parte-hartzaile guztiei agiriz bermatu eta eskuratu zaizkiela COVID-19aren segurtasun-protokoloak, informazio-neurriak eta higiene eta segurtasun arloko prebentzio-neurriak, eta aditzera eman zaiela lehiaketatik eta kirol-instalaziotik kanpo gera daitezkeela, jarraibide horiek betetzen ez badituzte.
4. Ohartzen dela eta onartzen duela COVID-19aren inguruko arauak ez betetzea, bereziki positibo eman izana ez aitortzea edo sintomak dituzten pertsonekin gertuko harremanak izana ez aitortzea, arau-hauste oso larria dela diziplina-kodean eta, ondorioz, lehiaketatik kanpo gera daitekeela eta, bere kasuan, kirol-kategoria gal dezakeela.
5. Lehiaketaren antolatzaileak bertan parte hartzen duten guztiak erregistratu dituela trazabilitatea izateko, lehiaketaren ondorioz besteekin harreman estua izan duen parte-hartzailearen baten artean positiboa edo positiboa izateko sintomak badira.

Aldi berean, adierazten du FVK/EKFren protokoloan ezarritako berariazko babes- eta higiene-neurriak ezagutzen dituela eta haren arauak nahitaez bete behar dituztela partaideek KARATE ETA DIZIPLINA ATXIKIEN kirol-lehiaketa ofizialetan eta Federazioari atxikitako elkarte partaideek ere nahitaez bete behar dituztela.

Aurrez aipatutako arauak betetzea partaide bakoitzaren eta lehiaketa antolatzen duen klub edo erakundearen erantzukizuna da eta FVK/EKFK ez du inolako erantzukizunik lehiaketan parte hartzearen ondorioz egon daitezkeen kutsatzeenik.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut
.....(a)n

20....(e)koren(e)an.

Sinadura

5. ERANSKINA

EGIAZTATZEKO GAUZEN ZERRENDA

LEHIAKETAREN ANTOLATZAILEAK BETE DIRELA EGIAZTATU BEHARREKO NEURRIAK.

Lehiaketaren antolatzaileak edo instalazioaren titularrak protokoloa oinarri hartu eta puntuz puntu garatuko du egiaztatu beharreko zerrenda; zerrenda hori kirol-zentro edo -instalazio bakoitzaren berariazko planean sartuko da eta kirol-ekitaldiaren berariazko planean ere bai.

Gainera, atal bakoitzean zehaztuko ditu prebentzio-neurrien arduradunak, erraz egiaztatzeke eta zuzen betetzen dela erraz ikusteko moduko zerrenda egingo da kasu bakoitzean dagozkion atalekin eta Berariazko Planari atxikiko zaio.

GOMENDIO OROKORRAK	BAI	EZ	ED
ESKUAK GARBITU:			
Gel-banagailuak banatu			
Sarri garbitzeko adierazi			
Lehortzeko materialak, behin bakarrik erabiltzekoak			
Pedala duten zakarrontziak, materiala botatzeko			
DISTANTZIA SOZIALA			
1,5 metroko gutxieneko distantziaren ikurrak			
Pilaketarik gabeko joan-etorriak instalazioetan			
NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUA (NBE)			
Maskara erabili ala ez adierazi, beharrendaren arabera			
Maskara eskuragai izan			
Eskularruak eskuragai izan			
Beste NBE batzuk (mantalak...) eskuragai izan			
Garraibideetan maskararen erabilera egiaztatu eta kontrolatu.			
Kirol-instalazioetan maskararen erabilera egiaztatu eta kontrolatu.			
ARNASA-HIGIENEA:			
Arnasa-higieneko neurriak gogorarazteko kartelak			
Ez partekatu objektu pertsonalak, tresnak edo kirol-materiala eta horien desinfekzioa			
Komunak eta aldagelak erabiltzeko murrizketak			



karate

federación vasca
euskal federazioa



GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA			
Garbitzeko eta desinfektatzeko gomendioak (erabili beharreko produktuak)			
Garbitzeko eta desinfektatzeko txandak			
Aurretik, bitartean eta ondoren egurasteko jarraibideak			
Denek erabiltzeko eremuak garbitu eta desinfektatu			
Gelak/bulegoak garbitu eta desinfektatu			
Kirol-eremuak garbitu eta desinfektatu			
Komunak garbitu eta desinfektatu			
Aldagelak garbitu eta desinfektatu			
Kirol-materialak garbitu eta desinfektatu			
Ostalaritzako eremuak garbitu eta desinfektatu			
HONDARRAK			
Pedala duten zaborrontziak			
Hondarren kudeaketa			
ARAUDIAK			
Instalazioak erabiltzeko araudia			
Edukiera murriztu			
Aurretiazko hitzordua			
INFORMAZIO-NEURRIAK			
Informatzeko kartelak			
Informatzeko hitzaldiak			
Langileen trebakuntza			
Tenperatura hartzeko eta sintomak hautemateko arduradunek horretarako beharrezko prestakuntza eta informazioa dutela egiaztatu eta kontrolatu.			
Edukierak eta dutxak, komunak eta aldagelak erabiltzeko murrizketak ezagutzen eta errespetatzen direla egiaztatu eta kontrolatu			
Kirolariak (batez ere adingabeek) gomendioak ezagutzen dituztela eta neurri hauen garrantziaz sentsibilizatuta daudela egiaztatu eta kontrolatu.			
Garapenean dauden beste prebentzio-neurriak egiaztatu eta kontrolatu			
BERARIAZKO GOMENDIOAK	BAI	EZ	ED
INSTALAZIOETAN SARTU ETA ERABILTZEKO OSASUN-			

Julián Gaiarre, 44
48004 Bilbao

T. 94 459 81 11
F. 94 459 81 63
fvk.ekf@karateuskadi.eus

AON
Empower Results®



NEURRIAK				
Sartzeko puntuak ezarri				
Pertsonen joan-etorria kontrolatu				
Kreditatutako pertsonak baino gehiago ez direla sartzen instalazioetan egiaztatu eta kontrolatu				
Edukierak kontrolatzen direla eta ez direla gainditzen kontrolatu eta egiaztatu				
Sarrerako kontrolaren eguneroko erregistroa				
Gorabeheren erregistroa				
Instalazioan sartzeko protokoloa ikusteko moduan egon				
Desinfektatzeko materiala hornitu				
Distantzia sozialari buruzko kartelak zonaka banatu				
Instalazioak desinfektatzeko txandak				
Edukieran mugak				
Telelana sustatu				
Izapide telematikoak				
Ordainketa telematikoak				
Egoitza eremua kudeatu (horrelakorik balego)				
Berariazko neurriak ezintasunen bat duten kirolarien modalitateetarako				
ENTRENAMENDUETAKO OSASUN-NEURRIAK				
COVID-19aren kontrol medikoak kirolariei				
Sorospen-kontrola entrenamenduetan				
Maskara erabiltzeko aginduak une bakoitzean				
Kirol-instalazioak erabiltzeko jarraibideak				
Materiala erabiltzeko jarraibideak				
Beste neurri batzuk				
LEHIAKETAKO OSASUN-NEURRIAK		BAI	EZ	ED
ARRISKUAREN BALORAZIOA:				
Aurreikusitako partaide kopurua, kirolariak, teknikariak eta ikusleak barne.				
Aire librean edo instalazioan				
Kontaktu maila				
HARTUTAKO PREBENTZIO-NEURRIAK		BAI	EZ	ED



karate

federación vasca
euskal federazioa



KIROLARIAK ETA INSTALAZIOA			
Maskara erabiltzea nahitaezkoa ala ez			
Materiala partekatzeko araudia			
Instalazioak aldiro desinfektatu			
Seinaleak instalazioan			
Kokapenaren inprimakia			
Kirolariei tenperatura hartu lehiaketa aurretik			
Lehiaketako osasun-neurriak			
Distantziak bete lehiaketan			
LAGUNTZAILEAK			
Arrisku-pertsonen balorazioa			
Laguntzaileen trebakuntza			
Distantzia ikusleen artean			
Maskaren erabilera			
IREKIERAKO ZEREMONIA ETA SARI-EMATEA			
Prebentzio-neurriak hartu			
BILERA TEKNIKOAK			
Distantziamendu- neurriak			
Ospakizun telematikoa			
PROTOKOLOKO ARDURADUNA IZENDATU			
SINTOMAK DITUZTEN PERTSONEKIN ERABILTZEKO KONTINGENTZIA-PROTOKOLOA IZAN			

Julián Gaiarre, 44
48004 Bilbao

T. 94 459 81 11
F. 94 459 81 63
fvk.ekf@karateuskadi.eus

AON
Empower Results®



6. ERANSKINA

BALIZKO COVID-19 KASUETAN ERABILTZEKO NEURRIAK

Positibo bat hautemanenez gero talde batean edo lehiaketa autonomiko bat egiten ari dela:

Eskudun osasun-agintarien zaintzapean positiboa bakartu egin behar da gutxienez 10 egunez lagina hartu zenetik zenbatzen hasita, sintomarik garatzen ez bada. Sintomak izanez gero, bakartzea luzatu egingo da sukarra eta koadro klinikoa normaltzen direnetik hiru egunera arte, hau da, gutxienez sintoma horiek hasi zirenetik 10 egunean.

Positiboaren berri eman:

- a. Osasun Sailari
- b. Dagokion lurralde-federazioari
- c. FVK/EKFri

Dena dela, dagokien osasun-agintarien jarraibideak bete beti.

Elkartean edo federazioan harreman estua izan bada, osasun-agintarien jarraibideen arabera harreman estua izan duena ere bakartu egingo da positiboa emandakoarekin azkenengo harremana izan zuenetik gutxienez 14 eguneko epean, eta positiboa eman zuenari egingo zaizkio proba berdinak egingo zaizkio.

Instalazioak desinfektatu egin beharko dira.

Lehiaketan sintomaren bat sumatuz gero, pertsona hori gela batean bakartuko da beharrezko osasun-baldintzetan, termometro laserrarekin, maskararekin, gelarekin, etab.

Gainera, ekitaldia garatzen ari den instalazioari dagokion osasun-zentro publikoarekin harremanetan jarri beharko da edozein behar izanez gero eta kasu hauetan bete beharreko protokoloaz kontsultaren bat egin beharra izanez gero.

Bertaratzen diren guztien izen-abizenak eta harremanetarako datuak hartuko dira, harremanetan jartzeko beharra izanez gero ere.

Sinadura